AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

*ERMUA HIRIKO UDALA*

**Policía Municipal/*Udaltzaingoa***
**Información de interés/*Jakin beharrekoa***

*Zeharkale kaleko bizilaguna zarenez gero, bide horretan segurtasuna hobetzeari begira hartuko diren bide-antolaketa neurrien berri ematera natorkizu eta zure laguntza eskatzera aldi berean, zuk horregatik zigorren bat izatea dezazula saihesteko.*

*Zeharkale kalea, BI-3302 foru-errepidearen zati izanik, ibilgailu mota guztien derrigorrezko pasabidea da gaur egun Kaltxango eta aldameneko Mallabia herriaren artean, eta Urtiako Industrialdean dauden enpresetara doazen kamioi handien iraganbide bihurtu da.*

*Zeharkale kalea zeharkatzen duten ibilgailu astunen zirkulazioak deserosotasuna eta eragozpen handiak sortzen dizkie etengabe auzotarrei zarata eta kutsadurarengatik, eta guztiz arriskutsua da, gainera, bide hori erabiltzen duten beste gidarientzat.*

*Autobus bat edo edukiera handiko kamioi bat pasatzen den bakoitzean gainerako ibilgailuak alde batera erretiratu behar dira, zeren zirkulazio-erreiak hain dira estuak, guztiz zaila gertatzen dela kamioi bat eta kontrako norabidean datorren beste ibilgailu bat paraleloan gurutzatzea.*

*Zoritxarrez, oraingoz behintzat ibilgailu horiek ez dute Gipuzkoatik beraien helmugara iristeko edo Gipuzkoarantz abiatzeko beste pasabiderik, eta Ermuko saihesbidea litzateke ibilgailu astun horiek gure udalerriko kaleak gurutzatzeari uzteko modu bakarra.*

*Ez dugu Zeharkale kalea egun dagoen moduan egoterik nahi, eta bertako zirkulazioa murrizteko konponbide bakarra saihesbidea egitea dela aldarrikatzen jarraituko badugu ere, egia da kale horretako egungo trafikoaren egoera, batez ere Mallabirako zirkulazio-erreian autoak aparkatuta daudenean, kaotikoa dela egunero eta etengabea gainera egun osoan zehar, horregatik, Zeharkale kalearen bide-segurtasuna hobetzeko, eta bide horren antolamendua eta zainketari*

Como vecino/a residente en la calle Zeharkalea le informamos de las medidas que, próximamente, se van a implantar para priorizar la ordenación y regulación viaria encaminada a mejorar la seguridad vial en dicha calle, por lo que le pido su colaboración a fin de evitar que se le pueda imponer una sanción, por esta causa.

La calle Zeharkalea, como parte de la carretera foral BI-3302, es actualmente una vía de paso inevitable para todo tipo de vehículos en la línea de comunicación que conecta Kaltxango con el municipio vecino de Mallabia, lo que la ha convertido en una carretera de paso de camiones de gran tamaño que tienen como destino las empresas del polígono industrial de Urtia.

El tráfico intensivo de vehículos pesados que atraviesa la calle Zeharkalea es una fuente permanente de incomodidades y molestias por ruidos y contaminación para los vecinos y vecinas colindantes, y también un peligro en la conducción para el resto de personas usuarias de esta vía.

Cada vez que pasa un autobús o un camión de gran tonelaje el resto de vehículos deben echarse a un lado pues los carriles de circulación son tan justos que difícilmente puede coincidir un camión en paralelo con un coche en dirección contraria.

Por desgracia, de momento estos vehículos no disponen de otra vía de paso para llegar a su destino desde o hacia Gipuzkoa, y la construcción de la variante de Ermua es la alternativa para que este tráfico pesado deje de cruzar las calles de nuestro municipio.

Aunque no renunciamos a dejar de pensar en la calle Zeharkalea tal y como la conocemos hoy, y mantenemos la reivindicación de la construcción de la variante de Ermua como medio para lograr que Zeharkalea se convierta en una calle con mucho menos tráfico, lo cierto es que la situación actual del tráfico en esta calle, sobre todo cuando hay vehículos estacionados en el carril de circulación hacia Mallabia, es de caos diario y casi permanente durante todo el día, lo que hace necesario implementar medidas en el corto plazo mediante la mejora de la fluidez de la

*begira, beharrezkoa da neurriak hartzea, oinezkoen, garraio publikoaren eta bertatik dabiltzan gainerako ibilgailuen mugikortasuna hobetzeko.*

*Hori lortzeko nahitaezkoa da astelehenetik ostiralera –jaiegunetan salbu- 8:00etatik 20:00etara Mallabirako norakoan eskuineko zirkulazio-erreian ibilgailurik ez aparkatzea, eta bertan dauden zama-lanetarako guneak eta autobus geltokia errespetatzea.*

*Hala ere Udaltzaingoan badakigu gure herrian daukagun arazo handienetako bat aparkatzea dela, horregatik gaueko 22:00etatik biharamuneko goizeko 8:00ak arte baimenduta egongo da aurreko lerroaldean adierazitako orduetan debekatu den zirkulazio-erreian ibilgailuak aparkatzea, 20:00etatik aurrera bidaiariak garraiatzeko zerbitzu erregularrak eta autobus zerbitzuak besterik ez direlako ibiltzen.*

*Hala eta guztiz ere, Zeharkale kalearen amaieran, Mallabira norabidean dagoen biribilgunean, ezingo da inoiz ibilgailurik aparkatu,, behar ez bezala aparkatuta dauden ibilgailuek erdiko irlatxora igotzera behartzen baitituzte autobusak eta kamioiak, daramaten zama erortzeko arriskua sortuz.*

*Zeharkale kalearen inguruetan bizi zaretenoi gogorarazten dizuegu Lomi Powerren eraikinean –lehen Lomiño izandakoan- Areitiko jaitsieran hirigunetik hurbil, Torreta Etxetik eta Bizkaia Etorbideko espaloitik gertu, guztiz doan dagoela 70 automobilentzako aparkaleku publiko bat. 70 aparkaleku horietatik 54 barruan eta estalita daude, eta gainerako 26ak kanpoan. Aparkaleku horrek argia eta zainketa-kamerak ditu inguru osoan, eta irudiak Udaltzaingoaren bulegoetan ikusten dira, eguneko 24 orduetan grabazioa eginez.*

*Halaber, Monte Hermoso delako inguruan ere (San Pelaioko biribilgunea eta Betiondoren artean) behin-behineko aparkaleku bat dago 80 ibilgailurentzat.*

movilidad de peatones, transporte público y resto de vehículos que transitan o circulan por Zeharkalea.

Para lograr estos objetivos se hace necesario evitar el estacionamiento de vehículos en el carril derecho de circulación en sentido Mallabia, y el respeto a las dos zonas de carga y descarga de mercancías y la parada de autobús existentes en la calle Zeharkalea, entre las 8 y las 20 horas, de lunes a viernes, excepto festivos.

En la Policía Municipal somos conscientes de que el aparcamiento en el municipio es uno de nuestros principales problemas y, por ello, a partir de las 22 horas y hasta las 8 horas del día siguiente se autoriza el estacionamiento de vehículos en el carril afectado por la prohibición de aparcamiento durante el resto del día, pues estimamos que las afecciones al tráfico a partir de las 20 horas se reducen al servicio regular de transporte colectivo de viajeros o paso de autobuses.

Esto no obstante, no se autorizará el estacionamiento de vehículos en las inmediaciones de la rotonda existente al final de la calle Zeharkalea en dirección a Mallabia, pues los coches estacionados indebidamente en su entorno obligan a los autobuses y camiones a subir a la isleta central, con el consiguiente riesgo de desplazamiento de sus cargas.

Se recuerda a las personas residentes en el entorno de la calle Zeharkalea que en el edificio de Lomi-Power-antiguo Lomiño-, sito en la bajada de Areitio, cerca del casco urbano, de Torreta Etxea y acera de la Avenida Bizkaia, disponen de un aparcamiento público y gratuito para 70 automóviles. De esas 70 plazas 54 están en su interior y son cubiertas y las otras 26 se encuentran en el exterior. El aparcamiento dispone de iluminación y cámaras de vigilancia en el perímetro, cuyas imágenes llegan a las dependencias de la Policía Municipal y la grabación recoge las 24 horas del día.

Asimismo, en la zona de Monte Hermoso, que se ubica entre la rotonda de San Pelayo y Betiondo, también existe un aparcamiento provisional con capacidad para 80 vehículos.

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

*ERMUA HIRIKO UDALA*

**Policía Municipal/*Udaltzaingoa***
**Información de interés/*Jakin beharrekoa***

*Ondorioz, Zeharkale kalearen zaintza-lana egingo duten udaltzainek, edo unitate mugikorrean zerbitzuan ari direnek, debekatutako lekuan aparkatuta dauden ibilgailuak zaindu eta, behar denean, zigorra ezarriko diete, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen 65,4 d) artikuluaren ataletan aurreikusitako arau-hauste larriari dagokion zigorra ezarriz.*

*Aipaturiko arau-hausteak 200 €ko (berrehun euroko) isunarekin zigortuko dira, arau-hauste larriei dagokion zenbatekoa.*

*Ibilgailuaren gidaria bertan ez badago ibilgailua luzamendu gehiagorik barik leku horretatik berehala kentzeko, udaltzainak garabiari deituko dio ibilgailu arau-hauslea erretiratu eta ibilgailuen gordetegira eramateko, hala ezartzen baitu Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen 85,1 f) artikuluak, zeinak ondorengoa jasotzen duen: Obligazioa duenak egin ezean, trafiko-kudeaketaren ardura duen agintariak bide publikotik kendu eta ibilgailuen gordetegira eraman ahal izango du ibilgailua ondorengo kasuetan: ibilgailu bat zirkulatzeko erreserbatuta dauden erreietan edo erabiltzaile jakin batzuen zerbitzurako dauden bide-zatietan aparkatuta dagoenean, edo zamalanak egiteko guneetan aparkatuta dagoenean".*

En consecuencia, durante su servicio de patrulla los/as Agentes de la Policía Municipal que tengan asignada la vigilancia de la calle Zeharkalea o que presten servicio en un móvil, incluirán en su ruta la vigilancia y sanción, en su caso, de los vehículos que se encuentren estacionados en un lugar prohibido, como infracción grave prevista en el artículo 65,4 d), de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial.

Las mencionadas infracciones se sancionarán con el importe de 200€ (doscientos euros) correspondiente a las infracciones graves.

Si la persona conductora del vehículo no se encuentra al volante del mismo de modo que pueda iniciar inmediatamente las operaciones conducentes a su retirada del lugar sin más dilación, el/la Agente interviniente solicitará la retirada con grúa y conducción del vehículo infractor al depósito, al amparo de lo establecido en el artículo 85,1 f) de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, que dispone que *"la Autoridad encargada de la gestión del tráfico podrá proceder, si el obligado a ello no lo hiciera, a la retirada del vehículo de la vía y su depósito en el lugar que se designe en los siguientes casos: cuando un vehículo permanezca estacionado en los carriles o partes de las vías reservados exclusivamente para la circulación o para el servicio de determinados usuarios y en las zonas reservadas a la carga y descarga".*

En Ermua, a 11 de mayo de 2012/Ermuan, 2012ko maiatzaren 11n
EL DIRECTOR DE SEGURIDAD CIUDADANA/
HERRITARREN SEGURTASUNERAKO ZUZENDARIA,

Fdo./Sin.: José Antonio Fernández Celada